

Aitarik ez, ta umezurtz aul egiñik, itun;
sor ginduezan amak, baltz jantzita alargun.

Txindiz erosiko ura gaixuok dedagu;
su-egurra be erosi bearra daukagu.

Samak ariz lotuta baldan garabillez;
lanez abailduentzat egotarorik ez.

Aigito-siritarrai ogi deskatsegu,
gose-asperra zerbait aseko ba'dogu.

Oben egin ebenak il ziran asabak;
geuk darguz, barriz, aren uts-ordain zigorrak.

Mendeko zireanak jaube biur yakuz;
euren loki-biurrak nok ausiko dauskuz?

Jakia bizi-zoriz eskuratzen dogu,
lekarora be gezi jarraika yatorku.

Laba gorian letxe, gosete-ekaitz izuak
kiskal dauskuz biurtu soiñeko narruak.

Sion'go emakumak indarrez loituak,
Juda-errietako neskutsak galduak.

Nagusiak dingiliz ipiñi ebezan,
zarrakaz lotsarik ez eben iñon izan.

Lizunki erabilli ebezan gaztiak,
zigorrez odolustu mutiko txikiak.

Orain ez dager zarrik ate ondoetan,
gazte talderik bere ez eres-tokietan.

Biotz-alaia yaku negu-laiñoz jarri,
baita dantza-lekua zurbil, negargarri.

Gain geukan burestuna oiñetara yaku.
Ai!, oben egin gendun! Errukarriak gu!

Orretzek illun gure biotz pozkabiak,
orrexek dauskuz lanbroz lausotu begiak.

Ondaturikan datza Sion'go mendia,
ta non-nai dakusku azeri-usia.

Zuk, baiña, Jainko altsu, dirauzu betikoz;
zure bakal-aulkia zutik aldi oroz.

Zer dala-ta, gaixuok aitzu gozuz, Jauna?
Luzaro gu ete zure laguntzarik baga?

Itzul, Jaun on, gugana, ta gu Zurenera;
aspaldiko egunak betorkuz ostera.

Zuk, baiña, betiko lez gaituzu egotzi;
suminkor jarri zara gure kaltez, Urtzi.

ARRATS-BERAN

Jauna!, arrats-beeraten
doa, guztiz azkar...
Sakonean lo guraz
dira aritz, astigar.

Jauna!, ez nagizu itxi
itzal-arte bakar...
Zimikoak barrunbez
artegatsu nakar.

Egun da bizitzea,
Gau, barriz, erio.
Itzalak biotzari
Gau'ra bultz dagio.

Ez ni itxi, otoi, Jauna!,
itzalpean bakar:
zurrunbilloz neukake
betiko zoritxar!

Illunabar dan arren,
zakidaz Zu erlantz;
inguruan burrunbaz
bebilt mari-orratz.

Ez, ez ni itxi. Jaun altsu!,
argia il orduan...
Galdua nindukezu
gauaren arruan.

MAITASUN-AIOTSAK

Opal-maiko eun ostean didarka gizonari
maite zotiñak darioz Jaunaren biotzari.
Izadi ertz bakoaren Irazaille gurena
ta eguzkiz goiko urdiña eder jazten dabena
biotz garbi eske dago opal-maian oiuka;
ni, barriz, eskar gaiztoko, beragandik igeska.
Baitegi illunean soillik, eztau jñor be lagun,
eta bakartasun artan deadar dagist itun:
«Iges, ene seme? Nora ta zegaitik, laztan?
Zorion-iturria uka? A! Erdu neugana.
Ekarstazu maitasuna ta ordaiñez damotzut
bizitz-sorguko ur gardena; eztiz aseko zaitut.
Atseden egarriz zetan urrats nigandik urrun
ezek ase gabe aldi oro ba-dirauzu illun?
Alaitasun-lora billa zoaz noski mendira?
Muñoko lili pitxiak arantzazkoak dira.
Aintza-jaurgotik maitasun utsez jatsi nintzean
zeugan biotz ona euko nebalako ustean.

Gentz ta bizitz bera nozu. Lurrak eztamo ezer.
Deskiñan bake-aroa iñondik bai al dager?
Erdu arin ona, seme; zeure maitetasuna
da baitegi bakarrean egunoro naukana.
Ertzik eztau maitasunak. Sua dot biotzean;
Sar berton, ta ez izotzik izan gogo barnean.
Zu nigan eta ni zukan loki leunez batuta,
biotz-muñeak arrago gorian kiskalduta,
bat izango gara biok maitasunan altzoan.
Maitasuna dan gozoa! Erdu ona beingoan».

Eta nik, maitasun-aiots samurrok adi arren,
askok lez, ez entzun egin, basatzen ibiltarren?
Ez, Josu, Zeugana nator; zeutzat nire biotza.
Nigaz nai dozuna egin; urtu gogoko izotza.

BEGI - URDIN

Ba-dot aurtxo eder bat
ezti utsa dana;
lo dagoanean, ixil,
dagiote laztana.

Begi bi dauz urdiñak,
lilluragarriak;
ainbat argi eztauka
goiko eguzkiak.

Arraskorri sorgiña
dauko bekokian,
mao bi ezpanetan,
urrea uledian.

Garitzan pospoliñak
eder dau abesa:
nik aren begietan
dot ene amesa.